


10 gaztetik 5ek eguneroko astialdiko zati bat ematen dute askotariko gauzak irakurtzen

Gazte irakurleek gehien hautatzen dituzten liburuak literatura hutsekoak edo denbora pasatzekoak dira, eta gazteenak dira euskarazko liburuak aukeratzen dituztenak



Gazteen argazkiak seriean biltzen diren datuak aintzat hartuta eta askotariko irakurketari dagokionez (prentsa, liburuak, eskuliburuak...), zera ondorioztatzen da: 15 eta 29 urte bitarteko gazteen erdiak baino gehiagok egunero edo ia egunero irakurtzen duela bere astialdian.


%20 baino gehiago astean bitan edo hirutan aritzen da irakurtzen, %15 noizean behin eta %10 inoiz ez edo ia inoiz ez. Irakurtzea aisia-jarduera ohikoagoa da nesken gainetik: mutilen %14k aitortzen du ez duela inoiz edo ia inoiz ere irakurtzen; nesken portzentaje hori %8 da soilik.



Iturria: Gazteen argazkiak 8. Gazteen Euskal Behatokia

Liburuak irakurtzea

Hilean behin gutxienez liburuak irakurtzen dituztela adierazten duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen %36k diote azkeneko urtean 4 eta 7 liburu artean irakurri dituztela; eta %32k liburu 1en eta 3 libururen artean ibili direla. %20k baino gutxiagok esan dute batez beste 8tik 12ra liburu (%17k) edo 13tik gora liburu (%14k) irakurri dituztela.



n= gutxienez hilean behin liburuak irakurtzen dituzten 15 eta 29 urte bitarteko gazteak

Iturria: Gazteen argazkiak 8. Gazteen Euskal Behatokia

Gehienetan gazteek aukeratzen dituzten liburuak literatura hutsekoak edo denbora-pasarakoak dira (%91). Mutilek hautatutako liburuen artean, nagusienak kontsulta edo erreferentziakoak, historiari edo arteari buruzkoak eta profesional edo teknikoak dira. Neskek, ordea, literatura hutsekoak, denbora-pasarakoak eta testu-liburuak aukeratzen dituzte. Adinari bagagozkio, adinez nagusiago direnek joera handiagoa dute denbora-pasarako liburuak, historiakoak edo teknikoak irakurtzeko. Gazteenek, aldiz, joera handiagoa dute testu-liburuak edo kontsultarako liburuak irakurtzeko.

15 eta 29 urte bitarteko biztanleek irakurritako liburu motak, sexuaren eta adin-taldearen arabera. Portzentajeak. EAE. 2004

	Sexua			Adin-taldeak			
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	15-17	18-21	22-25	26-29
Literaturakoak edo entretenimendukoak (eleberria, poesia...)	91	87	94	87	92	92	91
Testu-liburuak	36	35	37	64	44	34	11
Kontsultakoak edo erreferentziakoak (entziklopediak, hiztegiak...)	25	27	23	32	30	24	18
Historia, artea	23	27	19	19	20	29	20
Profesionalak, teknikoak	21	26	16	13	16	29	22
Bestelakoak	16	16	15	15	17	19	12

n= gutxienez hilean behin liburuak irakurtzen dituzten 15 eta 29 urte bitarteko gazteak
 Liburu mota bakoitziari emandako baieztatu erantzunen portzentajea
 Iturria: Gazteen argazkiak 8. Gazteen Euskal Behatokia

Gutxienez hilean behin liburuak irakurtzen dituztela dioten gazte gehien-gehienek gaztelaniazkoak hartzen dituzte esku artean, %31ek euskaraz eta %10ek beste hizkuntza batean. Datuek adierazten dutenez, zenbat eta

gazteago izan, orduan eta gehiago erabakitzen da euskaraz irakurtzea.

15 eta 29 urte bitarteko biztanleek irakurritako liburuen hizkuntza, adin-taldean arabera. Portzentajeak. EAE. 2004					
	Guztira	Adin-taldeak			
		15-17	18-21	22-25	26-29
Gaztelania	99	98	99	99	100
Euskara	31	52	34	24	21
Beste hizkuntza batzuk	10	13	11	10	7

n= gutxienez hilean behin liburuak irakurtzen dituzten 15 eta 29 urte bitarteko gazteak
Hizkuntza bakoitzari emandako baiezkoko erantzunen portzentajea
Iturria: Gazteen argazkiak 8. Gazteen Euskal Behatokia

Erlazionatutako datu-etaulak:

- [1. taula](#) (pdf, 20 kb)
- [2. taula](#) (pdf, 20 kb)
- [3. taula](#) (pdf, 20 kb)
- [4. taula](#) (pdf, 20 kb)

Erlazionatutako estekak:

[Gazteen Euskal Behatokiko estatistikak](#)